

**KOD.: A103**

**ADMINISTRAZIO OROKORRA**

***LEHEN ARIKETA  
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 120 minutu.  
Galderak: 120.***

EREDUA:

**D**

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredia.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
  - Asmatuak: 1,00
  - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

**Eskerrik asko zure laguntzagatik**

1.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena. 124-4 g) artikulua arabera, bandoak, dekretuak eta jarraibideak ematea honi dagokio:

- a) Tokiko Gobernu Batzarra.
- b) Udalbatza.
- c) Alkatea.
- d) Udaleko Aholkularitza Juridikoa.

2.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena. 49. artikulua arabera, ordenantza lokalak onartzeko prozedura hau bete behar da:

- a) Udalbatzak hasierako onespina ematea, jendaurreko informazioa eta interesdunei entzunaldia ematea.
- b) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea.
- c) Udalbatzak behin betiko onespina ematea.
- d) Aurreko guztiak.

3.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena. 70.2 artikulua arabera, ordenantza lokalak, aurrekontuak eta ordenantza fiskalak izan ezik, indarrean jartzen dira...

- a) testua Udalaren iragarki-taulan argitaratzean.
- b) testu osoa probintziako aldizkari ofizialean argitaratzean.
- c) testu osoa probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta lege horren 65.2 artikuluan aurreikusten den epea igarotakoan.
- d) testu osoa Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta lege horren 65.2 artikuluan aurreikusten den epea igarotakoan.

4.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 129. artikulua arabera, legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute:

- a) premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa eta gardentasuna.
- b) premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.
- c) premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, sarbide unibertsala eta gardentasuna.
- d) premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta gobernu ona.

5.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena. 141. artikulua arabera, legeetan bestelako aurreikuspenik egin ezean, ordenantza lokalen arau-hauste arinen ondorio diren isunek zenbateko hau errespetatu behar dute:

- a) 750 eurotik gora.
- b) 300 euro arte.
- c) 750 euro arte.
- d) 50 eurotik 500era arte.

6.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 9-5 artikulua arabera, udal-autonomiak barne hartzen du, betiere,... (Aukera OKERRA adierazi)

- a) bere lurraldea antolatzea.
- b) ekimen ekonomikoa.
- c) kontzejuen gobernu- eta administrazio-organoen antolakuntza eta kudeaketa.
- d) ondarea eta diru-bilketa.

7.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 25. artikulua arabera, ahalegina egin behar da toki-hauteskundeetako hautagai-zerrendetan emakumeen eta gizonen kopurua parekidea izan dadin azken hauteskunde-emaitzak kontuan hartuta hautatuak izateko aukerak dituzten postuetan, halako moldean non sexu bakoitzak gutxienez postu horien...

- a) % 35 har dezan.
- b) % 40 har dezan.
- c) % 45 har dezan.
- d) % 50 har dezan.

8.- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena. 3. artikulua arabera, erabilera publikoko ondasunak dira: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) udal-igerilekuak.
- b) bideak.
- c) kaleak.
- d) plazak.

- 9.- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena. 6. artikulua arabera, ondare-ondasunak honen bitartez arautzen dira:
- berariazko legedia.
  - ordenamendu pribatua.
  - berariazko legedia eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.
  - ordenantza fiskalak.
- 10.- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena. 8. artikulua arabera, toki-erakundeen ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko, espedientea behar da:
- hori egitearen egokitasuna eta legezkontasuna egiaztatzeko.
  - hori egitearen egokitasuna eta dibertsitatea egiaztatzeko.
  - legezkontasuna eta indarraldia egiaztatzeko.
  - legezkontasuna eta eskumena egiaztatzeko.
- 11.- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa. 15. artikulua arabera, antolamendu juridikoan jasota dauden moduetako edozein erabiliz eskura ditzakete eskubideak eta ondasunak administrazio publikoek, eta, bereziki,... (Aukera OKERRA adierazi)
- preskripzioaren bitartez.
  - okupazioaren bitartez.
  - lorpenaren bitartez.
  - legeak aitortzen dizkielarik.
- 12.- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa. 41. artikulua arabera, ahalmen eta eskumen hauek izango dituzte administrazio publikoek, beren ondarea aldeztuko: (Aukera OKERRA adierazi)
- beren titulartasuneko higiezinak administrazio-bidean mugarritzea.
  - beren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa egitea.
  - beren ondasun eta eskubideen gainean behar ez bezala galdutako jabetza berreskuratzea.
  - antza denez beren ondarekoak diren ondasun eta eskubideen egoera ikertzea.
- 13.- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa. 93. artikulua arabera, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak egiteko erregimen hau baliatuko da —behar bezala justifikatutako salbuespenezko zirkunstantziak edo legeetan ezarritako bestelako suposizioak gorabehera—:
- balioespena.
  - elkar aditzea.
  - konkurrentzia.
  - partaidetza.
- 14.- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa. 100. artikulua arabera, arrazoi hauengatik iraungiko dira emakida eta baimenak: (Aukera OKERRA adierazi)
- aldeak ados jartzea.
  - ondasuna desagertzea.
  - lehentasunez erosteko eskubidea baliatzea.
  - kanona ez ordaintzea.
- 15.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 3. artikulua arabera, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute:
- Ukituen taldeek, Legeak espresuki hala adierazten duenean.
  - Legeak espresuki hala adierazten duenean, ukituen taldeek, nortasun juridikorik gabeko batasun eta entitateek eta ondare independente edo autonomoek.
  - Ukituen taldeek eta ondare independente edo autonomoek, Legeak espresuki hala adierazten duenean.
  - Nortasun juridikorik gabeko batasun eta entitateek, ukituen taldeek eta ondare independente edo autonomoek.
- 16.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 5. artikulua arabera:
- Izapide huts diren egintza eta kudeaketak inolako egiaztapenik gabe egin ditzake ordezkariak.
  - Egintza eta kudeaketa guztietarako egiaztatu beharko da ordezkariak.
  - Erantzukizunpeko adierazpenak eta komunikazioak aurkezteko bakarrik egiaztatu beharko da ordezkariak.
  - Beste pertsona baten izenean erantzukizunpeko adierazpenak eta komunikazioak aurkezteko eta eskubideei uko egiteko bakarrik egiaztatu beharko da ordezkariak.

17.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 5. artikulua arabera:

- a) Administrazio publikoek gaikuntza orokor edo espezifiko eman ahal izango diete interesdunen ordezkari gisa transakzio elektronikoak egiteko baimenduta dauden pertsona fisikoak.
- b) Administrazio publikoek gaikuntza espezifiko eman ahal izango diete interesdunen ordezkari gisa transakzio elektronikoak egiteko baimenduta dauden pertsona fisiko edo juridikoei.
- c) Administrazio publikoek gaikuntza orokor edo espezifiko eman ahal izango diete interesdunen ordezkari gisa transakzio elektronikoak egiteko baimenduta dauden pertsona fisiko edo juridikoei.
- d) Administrazio publikoek gaikuntza orokor edo espezifiko eman ahal izango diete interesdunen ordezkari gisa transakzio elektronikoak egiteko baimenduta dauden pertsona juridikoei.

18.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 7. artikulua arabera, eskaera, idazki edo komunikazio batean interesdun bat baino gehiago bada,...

- a) interesdun horiek espresuki adierazitako ordezkari edo interesdunarekin egingo dira egin beharreko jardunak; ezer adierazten ez bada, berriz, idazkian agertzen den lehenengoarekin.
- b) guztiekin eta bakoitzarekin egingo dira egin beharreko jardunak.
- c) lehenengo bi interesdunekin egingo dira egin beharreko jardunak.
- d) haiek izendatutako ordezkariarekin bakarrik egingo dira egin beharreko jardunak.

19.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 10. artikulua arabera, interesdunek erabakitzen badute bitarteko elektronikoen bidez izatea harremana administrazio publikoekin, sinadurarako baliozkotzat joko dira: (Adierazi OKERREKOA)

- a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatu eta aurreratuko sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzuen akreditatzaileen konfiantzako zerrendan».
- b) Administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema, ezartzen diren termino eta kondizioetan.
- c) Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatu eta aurreratuko sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzako zerrendan».
- d) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatu eta aurreratuko sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzako zerrendan».

20.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 12. artikulua arabera, interesdunen batek ez badauzka behar diren bitarteko elektronikoa, honek egin dezake, balio osoz, hura administrazio-prozeduran identifikatzeko edo sinadura elektronikoa emateko izapidea:

- a) Estaturako gaikuntza duen funtzionario batek, berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez.
- b) Dena delako administrazio herriarrei laguntzeko zerbitzuko edo pareko beste bateko funtzionarioak, berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez.
- c) Funtzionario publiko batek, berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez.
- d) Funtzionario publiko batek, buru-zereginetan diharduelarik, berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez.

21.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 13. artikulua arabera, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna dutenek eskubide hauek dituzte haiekiko harremanetan: (Adierazi OKERREKOA)

- a) Administrazio publikoen eta agintarien erantzukizuna eskatzea, legez hala dagokionean.
- b) Diharduen administrazioaren esku dauden agiriak aurkeztea.
- c) Datu pertsonalak babestea, eta bereziki administrazio publikoen fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna izatea.
- d) Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.

- 22.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 14. artikulua arabera, betiere, administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuak egongo dira honako hauek, gutxienez: (Aukera OKERRA adierazi)
- Pertsona juridikoak.
  - Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
  - Administrazio publikoetako enpleguak, enplegu publiko izateagatik administrazioekin egiten dituzten izapide eta jarduketarako, administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen eran.
  - Pertsona fisikoak.
- 23.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 19. artikulua arabera, pertsonak bulego publikoetan agertzea, bertara joanez edo bitarteko elektronikoz,...
- nahitaezkoa izango da.
  - nahitaezkoa izango da toki-erakundeetan.
  - lege-mailako arauen batean hala ezarrita dagoenean bakarrik izango da nahitaezkoa.
  - pertsona juridikoentzat bakarrik izango da nahitaezkoa.
- 24.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 20. artikulua arabera, zuzenean dira gai administratiboetako izapideen erantzule...
- ikuskaritza-ataletako langileak.
  - sailletako zuzendariak, toki-erakundeetan.
  - gaiak ebazteko edo bideratzeko ardura duten administrazio-unitateetako arduradunak eta administrazio publikoetako langileak.
  - gaien erregistro elektronikoen ardura duten administrazio-unitateetako arduradunak eta administrazio publikoetako langileak.
- 25.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 21. artikulua arabera, Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera...
- interesdunak eskatuta hasitako prozedura guztietan.
  - prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.
  - Administrazioak berak hasitako prozedura guztietan.
  - zehapen-prozeduretan bakarrik.
- 26.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 22. artikulua arabera, prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legez ezarri den gehieneko epea eten daiteke kasu hauetan: (Aukera OKERRA adierazi)
- Interesdunen bati akatsak zuzen ditzan edo beharrezko diren dokumentuak eta irizpen-elementuak bidal ditzan eskatu behar zaionean.
  - Administrazio bereko edo beste bateko organo bati nahitaez txostena eskatu behar zaionean.
  - Interesdunek errekusazioa sustatzen badute prozedura bat izapidetzen ari den bitarteko edozein unetan.
  - Interesdunek proposaturik proba teknikoak edo azterlan kontraesanezko edo erabakigarriak egin behar direnean.
- 27.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 23. artikulua arabera, epeak luzatzeaz ebazteko erabakiaren kontra...
- berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke.
  - errekurtsoa aurkez daiteke.
  - ez dago errekurtsorik aurkezterik.
  - zehapen-prozeduretan bakarrik aurkez daiteke errekurtsoa.
- 28.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 24. artikulua arabera, isiltasunak balio ez esleia izango du... (Aukera OKERRA adierazi)
- baiestearen ondorioz eskatzaileari edo hirugarrenei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren gaineko ahalmenak eskuratuko litzaizkiekeen prozeduretan.
  - Konstituzioaren 29. artikulua aipatzen duen eske-eskubideaz baliatzeari buruzko prozeduretan.
  - udal antolakuntzari eragin diezaioketen jarduerak bideratzea dakarten prozeduretan.
  - Administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan.

- 29.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 25. artikulua arabera, ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean ebazpena eman eta jakinarazi ez izateak ondorio izango du:
- Iraungi egingo dira prozedurak, zehatzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak.
  - Iraungi egingo dira eskubideak aitortzeko prozedurak.
  - Iraungi egingo dira eskubideak eratzeko prozedurak.
  - Iraungi egingo dira interesdunari ondorio onuragarriak sorrarazteko moduko prozedurak.
- 30.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 27. artikulua arabera, kopia autentikoek:
- erregistroen arloko laguntza-bulegoetan egiten badira bakarrik izango dute jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta efikazia bera.
  - jatorrizko dokumentuen baliozkotasun bera izango dute, baina efikaziarik gabe.
  - jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta efikazia bera izango dute.
  - jatorrizko dokumentuen efikazia bera izango dute, baliozkotasun mugatuarekin.
- 31.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 28. artikulua arabera, Administrazioek interesdunei eskatuko dizkiete:
- jatorrizko dokumentuak.
  - jatorrizko dokumentuak, salbuespenezko moduan, aplikatzekoa den araudiak hala agintzen badu.
  - aplikatzekoa den araudiak eskatzen ez dituen dokumentuak.
  - prozedura izapidetzen ari den administrazio-organoaz beste batek lehendik egindako nahitaezko txostenak.
- 32.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 30. artikulua arabera, legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko...
- igandeak eta jaiegun izendatutakoak.
  - larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak.
  - igandeak eta jaiegun izendatutakoak, jai lokalak izan ezik.
  - larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak, jai lokalak izan ezik.
- 33.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 30. artikulua arabera, egun bat balioduna bada interesduna bizi den udalerrian edo autonomia-erkidegoan, eta baliogabea administrazio-organoaren egoitzan, edo alderantziz,...
- baliogabetzat hartuko da beti.
  - balioduntzat hartuko da beti.
  - balioduntzat hartuko da kasu batzuetan.
  - baliogabetzat hartuko da kasu batzuetan.
- 34.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 31. artikulua arabera, erregistro elektronikoen funtzionamenduak:
- Aukera emango du dokumentuak aurkezteko urteko egun baliodun guztietan, eguneko hogeita lau orduetan.
  - Aukera emango du dokumentuak aurkezteko egutegi ofizialean finkatutako urteko egunetan.
  - Aukera emango du dokumentuak aurkezteko urteko egun guztietan, Administrazio bakoitzaren irekitze-ordutegi ofizialaren barruan.
  - Aukera emango du dokumentuak aurkezteko urteko egun guztietan, eguneko hogeita lau orduetan.
- 35.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 35. artikulua arabera, arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz: (Aukera OKERRA adierazi)
- Zehatze-izaerako prozedurak edo ondare-erantzukizunaren esparrukoak ebazten dituzten egintzak.
  - Lehenagoko jarduketetan erabilitako irizpidearekin bat ez datozen egintzak.
  - Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak.
  - Interesdunek proposatutako frogak baztertzen dituzten egintzak.
- 36.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 40. artikulua arabera, prozeduraren gehieneko epearen barruan jakinarazteko betebeharra beteta dagoela jotzearen ondorio hutsetarako, nahikoa izango da jakinarazpenak, gutxienez,...
- ebazpenaren testu osoa izatea.
  - ebazpenaren testu osoa izatea, eta jakinarazpena egiten saiatu direla egiaztatzea.
  - ebazpenaren testu osoa izatea, eta behar bezala egindako jakinarazpena.
  - ebazpenaren oinarriko edukia jasotzen duen testua izatea, eta jakinarazpena egiten saiatu direla egiaztatzea.

37.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 41. artikulua arabera, jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egingo dira:

- a) Ahal dela.
- b) Nahitaez.
- c) Aukeran.
- d) Komunzki.

38.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 42. artikulua arabera, jakinarazpena interesdunaren egoitzan egiten bada eta une horretan hura ez badago, jakinarazpena har dezake:

- a) egoitzan dagoen hemezortzi urtetik gorako edozein pertsonak, nor den jasota utzirik.
- b) egoitzan dagoen hamabi urtetik gorako edozein pertsonak, nor den jasota utzirik.
- c) egoitzan dagoen hamalau urtetik gorako edozein pertsonak, nor den jasota utzirik.
- d) egoitzan dagoen hamasei urtetik gorako edozein pertsonak, nor den jasota utzirik.

39.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 43. artikulua arabera, jakinarazpena bitarteko elektronikoz egitea nahitaezkoa denean, edo interesdunak espresuki hori aukeratu duenean, ez onartuzat joko da...

- a) haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun baliodun igarotakoan.
- b) haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igarotakoan.
- c) haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik hamabost egun natural igarotakoan.
- d) haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik hamabost egun baliodun igarotakoan.

40.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 44. artikulua arabera, ez bada jakiterik prozedura bateko interesdunak nor diren, edo jakinarazpena non egin behar den, edo jakinarazpena saiatu baina huts egin bada,...

- a) Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena.
- b) Estatuko Aldizkari Ofizialean eta probintziako aldizkari ofizialean iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena.
- c) probintziako aldizkari ofizialean iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena.
- d) Estatuko Aldizkari Ofizialean eta autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena.

41.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 47. artikulua arabera, administrazio publikoen egintzak erabat deusezak izango dira baldin eta: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) ezinezko edukia badute.
- b) aginte-desbideratzea egokitzen bada.
- c) arau-hauste penal badira.
- d) gaietatik edo lurraldeetatik organo nabarmen eskumengaberen batek eman baditu.

42.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 52. artikulua arabera, egintza deuseztagarri baten akatsa baimenen bat falta izatea bada, eskumena duen organoak baimen hori emateak hau ekarriko du:

- a) egintza deuseztagarri hori konbertitzea.
- b) egintza deuseztagarri hori baliozkotzea.
- c) egintza deuseztagarri hori kontserbatzea.
- b) egintza deuseztagarri hori ezeztatzea.

43.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 53. artikulua arabera, administrazio-prozedura batean interesdun direnek eskubide hauek dituzte: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) Prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak identifikatzea.
- b) Jatorrizko dokumentuak aurkeztea.
- c) Alegazioak aurkeztea.
- d) Aholkulari batek lagundurik jardutea beren interesen alde egiteko komeni zaiela deritzotenean.

44.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 62. artikulua arabera:

- a) Salaketa aurkezteak, besterik gabe, prozeduran interesdun bihurtzen du hura aurkeztu duena.
- b) Salaketa aurkezteak, besterik gabe, prozeduran agertu bihurtzen du hura aurkeztu duena.
- c) Salaketa aurkezteak ez du inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen prozeduran.
- d) Salaketa aurkezteak ez du inor, besterik gabe, prozeduran agertu bihurtzen.

45.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 66. artikulua arabera, prozedura jakin batean Administrazioak espresuki ezartzen baditu eredu espezifikoko batzuk eskaerak aurkezteko,...

- a) interesdunek, lehentasunez, eredu horiek erabili beharko dituzte.
- b) interesdunek, aukeran, eredu horiek erabili ahal izango dituzte.
- c) interesdunek, beren borondatez, eredu horiek erabili ahal izango dituzte.
- d) interesdunek nahitaez erabili beharko dituzte eredu horiek.

46.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 69. artikulua arabera, erantzukizunpeko adierazpenek eta komunikazioek aukera emango dute eskubide bat aitortzeko edo baliatzeko edo jarduera bat hasteko,...

- a) aurkezten diren egunaren biharamunetik.
- b) aldeko txosten teknikoa egiten den egunetik.
- c) izapidera onartzen diren egunetik.
- d) aurkezten diren egunetik.

47.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 70. artikulua arabera, ohar, iritzi eta laburpenak...

- a) administrazio-espeditarearen parte dira.
- b) ez dira administrazio-espeditarearen parte, salbu eta elektronikoki eransten bazaizkio.
- c) ez dira administrazio-espeditarearen parte.
- d) administrazio-espeditarearen parte dira, eta txosten teknikotzat joko dira, hari eransten bazaizkio.

48.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 77. artikulua arabera, agintari-kondizioa aitortzen zaien funtzionarioek formalizaturik dauden eta, dagozkien legezko betekizunak gorderik, haiek egiaztatutako egitateak jasotzen dituzten dokumentuak...

- a) egitateen frogatzat hartuko dira.
- b) ez dira egitateen frogatzat hartuko.
- c) egitateen frogatzat hartuko dira zenbait prozeduratan.
- d) egitateen frogatzat hartuko dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada.

49.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 80. artikulua arabera, espresuki kontrakoa xedatzen ez bada, txostenak...

- a) nahitaezkoak dira, eta lotesleak.
- b) aukerakoak dira, eta ez lotesleak.
- c) nahitaezkoak dira, eta ez lotesleak.
- d) aukerakoak dira, eta lotesleak.

50.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 95. artikulua arabera, prozedura interesdunak eskaturik hasia denean, hari inputa dakiokoen arrazoiren bategatik gelditzen bada, Administrazioak adieraziko dio prozedura iraungi egingo dela...

- a) hiru hilabete igarotakoan.
- b) sei hilabete igarotakoan.
- c) bi hilabete igarotakoan.
- d) hilabete igarotakoan.

51.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 100 artikulua arabera, administrazio publikoaren nahitaez betearazteko bitartekoak dira: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) Betearazpen subsidiarioa.
- b) Hertsatzeko isuna.
- c) Interesdunei galdatzea.
- d) Ondarearekiko premiamendua.



52.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 107. artikularen arabera, kaltegarritasun-deklarazioa ezin egingo da...

- a) administrazio-egintza eman zenetik bost urte igaro badira.
- b) administrazio-egintza eman zenetik hiru urte igaro badira.
- c) administrazio-egintza eman zenetik bi urte igaro badira.
- d) administrazio-egintza eman zenetik lau urte igaro badira.

53.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 124. artikularen arabera, berraztertze errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea...

- a) bi hilabete izango da.
- b) hilabete izango da.
- c) hogeita hamar egun baliodun izango da.
- d) hiru hilabete izango da.

54.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 125. artikularen arabera, berriuspen-errekurtso berezia aurkezteko epea, egiteko okerren bat gertatzen delarik salbu,...

- a) bi hilabete izango da.
- b) hilabete izango da.
- c) hogeita hamar egun baliodun izango da.
- d) hiru hilabete izango da.

55.- 2/1998 legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatze ahalmenari buruzkoa. 9. artikularen arabera, egileak dira:

- a) tipifikatutako gertakaria beren kasa, beste norbaitekin batera edo beste norbaitez baliatuz burutzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
- b) tipifikatutako gertakaria beren kasa, beste norbaitekin batera edo beste norbaitez baliatuz burutzen duten pertsona fisikoak.
- c) tipifikatutako gertakaria beren kasa, beste norbaitekin batera edo beste norbaitez baliatuz burutzen duten pertsona juridikoak.
- d) tipifikatutako gertakaria beste norbaitekin batera edo beste norbaitez baliatuz burutzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

56.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 9. artikularen arabera, eskumenak eskuordetzeari gagozkiolarik: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) Legeren batek espresuki baimenduta ez bada, ezin zaizkio inori eskuordetzan eman norberak eskuordetzaz baliatuz erabiltzen dituen eskumenak.
- b) Eskumenen eskuordetza eman duen organoak edozein unetan ken dezake.
- c) Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegokoan edo probintziakoan argitaratu behar dira; non argitaratu jakiteko, kontuan izango da zein administrazioetakoa den organo eskuordetza-emailea eta eskumena zein lurralde-eremutan duen.
- d) Xedapen orokorrak emateko eskumenak ordezkotzan eman daitezke.

57.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 23. artikularen arabera, gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izana....

- a) baliogabetzeko arrazoia da.
- b) parte ez hartzeko arrazoia da.
- c) baliozkotzeko arrazoia da.
- d) errekurtsoa aurkezteko arrazoia da.

58.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 25. artikulatik 29.era bitartekoaren arabera, zehatzeko ahalaren printzipioak dira: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) atzeraeragina.
- b) erantzukizuna.
- c) proportzionaltasuna.
- d) tipikotasuna.

59.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 30. artikularen arabera, preskripzioa ezartzen duten legeetan preskripzio-eperik finkatzen ez bada, arau-hauste arinen preskripzioa...

- a) bi urtera izango da.
- b) urtebetera izango da.
- c) sei hilabetera izango da.
- d) bederatzi hilabetekora izango da.

60.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 48. artikulua arabera, hitzarmenak perfektionatzeko dira...

- a) eskumena duen organoak onesten dituztelarik.
- b) eskumena duen organoaren onespena jakinarazten delarik.
- c) aldeek ados daudela adierazten dutelarik.
- d) egoitza elektronikoan argitaratzen direlarik.

61.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 53. artikulua arabera, hitzarmenak Kontuen Auzitegira edo autonomia-erkidegoko kanpoko fiskalizazio-organora bidali behar dira, bitarteko elektronikoak erabiliz,...

- a) hartutako konpromiso ekonomikoak 600.000 eurotik gorakoak badira.
- b) hartutako konpromiso ekonomikoak 800.000 eurotik gorakoak badira.
- c) hartutako konpromiso ekonomikoak 500.000 eurotik gorakoak badira.
- d) hartutako konpromiso ekonomikoak 100.000 eurotik gorakoak badira.

62.- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena. 2. artikulua arabera, gai hauen inguruan sortzen diren arazoez arduratuko da administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) Zuzenbide publikoko korporazioek funtzio publikoetan dihardutela emandako egintzak eta xedapenak.
- b) Administrazio-kontratuak.
- c) Administrazio publikoaren ondare-erantzukizuna.
- d) Jurisdikzio-ordena zibilari espresuki esleituriko kontuak, administrazio publikoaren jarduerarekin erlazionatuta daudelarik.

63.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 29. artikulua arabera, kontratuen luzapena kontratazio-organok erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta aurreabisua...

- a) kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere bi hilabete lehenago egiten bada; kontratuaren baldintza-agiriak hori baino epe luzeagoa ezar dezake.
- b) kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada.
- c) kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere bi hilabete lehenago egiten bada.
- d) kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada; kontratuaren baldintza-agiriak hori baino epe luzeagoa ezar dezake.

64.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 37. artikulua arabera,...

- a) sektore publikoko erakundeek ezingo dute kontraturik egin ahoz.
- b) sektore publikoko erakundeek ezingo dute kontraturik egin ahoz, non eta kontratua ez den larrialdi-kasukoa.
- c) sektore publikoko erakundeek ahoz egin ahal izango dituzte kontratu txikiak.
- d) sektore publikoko erakundeek ahoz egin ahal izango dituzte kontratuak, aldeaz aurretik beren kontratazio-organori jakinarazita.

65.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 44. artikulua arabera, kontratazio-erlortxo errekurso berezia aurkeztea...

- a) nahitaezkoa izango da errekurso-egileentzat.
- b) nahitaezkoa izango da errekurso-egileentzat, deuseztasun-arrazoietan oinarritzen bada.
- c) aukerakoa izango da errekurso-egileentzat, esleipen-prozedurako izapide-egintzen kontra aurkezten bada.
- d) aukerakoa izango da errekurso-egileentzat.

66.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 62. artikulua arabera, honela deitzen zaio kontratua nola gauzatzeko den gainbegiratzeko eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta jarraibideak emateko kontratazio-organok izendatutako pertsona fisiko edo juridikoari:

- a) Kontratuaren administratzailea.
- b) Kontratuaren arduraduna.
- c) Kontratuaren ikuskatzailea.
- d) Kontratuaren defendatzailea.

67.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 63. artikulua arabera, kontratu txiki buri buruzko informazioa...

- a) hilerik argitaratu behar da kontratatzailearen profilean.
- b) urtero argitaratu behar da kontratatzailearen profilean.
- c) sei hilerik behin argitaratu behar da kontratatzailearen profilean.
- d) hiru hilerik behin argitaratu behar da kontratatzailearen profilean.

68.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 64. artikulua arabera, zein kontzepturi dagokio definizio hau?: kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte-hartzen edo haren emaitza eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzatan jar dezakeena, interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik.

- a) Iruzurra.
- b) Interes-gatazka.
- c) Ustelkeria.
- d) Kontratazio-gatazka.

69.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 101. artikulua arabera, kontratuen balio zenbatetsia, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuen kasuan, honela zehaztuko da:

- a) Zenbateko osoa hartuko du, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.
- b) Zenbateko osoa hartuko du, balio erantsiaren gaineko zerga barne.
- c) Negozio-zifraren zenbateko garbia hartuko du, balio erantsiaren gaineko zerga barne.
- d) Negozio-zifraren zenbateko garbia hartuko du, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

70.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 118. artikulua arabera, kontratu txikiak dira, baldin eta hornidura- edo zerbitzu- kontratuak badira,...

- a) 15.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak.
- b) 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak.
- c) 15.000 euroko balio zenbatetsia dutenak.
- d) 40.000 euroko balio zenbatetsia dutenak.

71.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 131. artikulua arabera, normalean, printzipio honetan oinarritutako adjudikazio-irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak:

- a) kalitate-kostu erlazio onenaren printzipioa.
- b) eskaintza ekonomikorik onenaren printzipioa.
- c) eskaintzarik onenaren printzipioa.
- d) kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioa.

72.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 159. artikulua arabera, kontratazio-organoek erabaki ahalko dute prozedura ireki sinplifikatu bat erabil dadila...

- a) hornidura- eta zerbitzu-kontratueta.
- b) obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratueta.
- c) hornidura- eta zerbitzu-kontratueta eta zerbitzu-emakideta.
- d) obra-kontratueta, obra-emakideta, hornidura-kontratueta eta zerbitzu-kontratueta.

73.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 190. artikulua arabera, administrazio-kontratuak interpretatzeko eta horiek betetzean sortutako zalantzak ebazteko perrogatiba honek dauka:

- a) kontratazio-organoak.
- b) kontratazio-mahaiak.
- c) kontratuaren arduradunak.
- d) kontratua izapidetzen duen administrazio-atal edo -zerbitzuak.

74.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. 326. artikulua arabera, kontratazio-mahaia:

- a) gobernu-organo bat da.
- b) kontratazioaren arloko errekursoak ebazteko organo bat da.
- c) kontratazioaren arloko laguntza tekniko espezializatuko organo bat da.
- d) zuzendaritza-organo bat da.

75.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duena. 39. artikulua arabera, hauek dira funtzionarioak ordezkatzeko berariazko organoak:

- a) langileen ordezkariek eta langileen batzordeak.
- b) langileen ordezkariek eta lan-batzordeak.
- c) langileen batzordeak.
- d) negoziatio-mahaiak.

76.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duena. 52. artikulua arabera, enplegatu publikoek printzipio hauen arabera jardun behar dute: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) zintotasuna.
- b) gobernu ona.
- c) irisgarritasuna.
- d) gardentasuna.

77.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duena. 78. artikulua arabera, administrazio publikoetako bakoitzean lanpostuak betetzeko orduan, prozedura hauek baliatuko dira:

- a) deialdi publiko bidez egindako lehiaketa.
- b) deialdi publiko bidez egindako izendapen askea.
- c) lehiaketa eta deialdi publiko bidez egindako izendapen askea.
- d) deialdi publiko bidez egindako lehiaketa eta deialdi publikorik gabeko izendapen askea.

78.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duena. 98. artikulua arabera, falta arinak egiteagatik zehapena ezartzeko orduan, prozedura hau erabiliko da:

- a) prozedura sumarioa, interesdunari entzunda.
- b) prozedura laburtua, interesdunari entzunda.
- c) prozedura betearazlea, interesdunari entzunda.
- d) prozedura sinplifikatua, interesdunari entzunda.

79.- Espainiako Konstituzioa. 133. artikulua arabera, tokiko erakundeek zergak ezarri eta galda ditzakete,...

- a) Konstituzioaren, legeen eta epaitegien arabera.
- b) legeen arabera.
- c) Konstituzioaren eta epaitegien arabera.
- d) Konstituzioaren eta legeen arabera.

80.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala. 3. artikulua arabera, landa- nahiz hiri-ondasun higiezinaren gaineko nahiz ezaugarri bereziko higiezinaren gaineko ondoko eskubideen titulartasuna da Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren zerga-egitatea: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) Azalerako eskubide erreal batena.
- b) Higiezinaren beren gaineko alokairu-eskubide batena.
- c) Ondasun higiezinaren gaineko administrazio-emakida batena.
- d) Gozamen-eskubide erreal batena.

81.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala. 3. artikulua arabera, honako hau da zerga egitatea: trakzio mekanikodun ibilgailuen titularitatea, bide publikoetan barrena zirkulatzeko gai direlarik haiek, edozein mota eta kategoriatakoak izanik ere,...

- a) zirkulazio baimenean ageri den helbidea Gasteizko udalerrikoa delarik.
- b) ibilgailuaren titularraren gidabaimenean ageri den helbidea Gasteizko udalerrikoa delarik.
- c) udal erroldan ageri den ibilgailuaren titularraren helbidea Gasteizko udalerrikoa delarik.
- d) Trafiko Zuzendaritza Nagusian jasota dagoen ibilgailuaren titularraren helbidea Gasteizko udalerrikoa delarik.

82.- Ekonomia Jardueren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala. 6. artikulua arabera, zerga ordaintzetik salbuetsita daude:

- a) 2.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak.
- b) 1.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak.
- c) 2.000.000 euroko edo hortik beherako eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak.
- d) 1.000.000 euroko edo hortik beherako eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak.

83.- Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala. 7. artikulua arabera, Hiri-lurren balioaren gehikuntza —zerga sortzen den unean agerian jartzen dena— izango da zerga honen zerga-oinarria. Hori zehazteko orduan, gehienez ere...

- a) hamar urteko epea hartuko da kontuan.
- b) hamabost urteko epea hartuko da kontuan.
- c) hogeitau urteko epea hartuko da kontuan.
- d) hogeita bost urteko epea hartuko da kontuan.

84.- 6/2005 Foru Arau Orokorra, otsailaren 28koa, Arabako Zergei buruzkoa. 41. artikulua arabera, zerga-erantzukizuna beti izango da...

- a) subsidiarioa.
- b) solidarioa, kontrako berariazko legezko manurik izan ezean.
- c) solidarioa.
- d) solidarioa, kontrako berariazko legezko manurik izan ezean.

85.- 6/2005 Foru Arau Orokorra, otsailaren 28koa, Arabako Zergei buruzkoa. 118. artikulua arabera, zergak kudeatzeko prozedurak dira: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) balioak egiaztatze prozedura.
- b) saihestearen kontrako klausula aplikatzeko prozedura.
- c) aitopenaren bidez hasten den prozedura.
- d) zerga-zorra likidatzeko ofizioz hasten den prozedura.

86.- 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzkoa. 40. artikulua arabera, gastu-xedapen edo konpromisoa egintza bat da, zeinen bitartez erabakitzen baita —legez ezarritako tramiteak bete ondoren— alde aurretik baimendutako gastuak egitea...

- a) zenbateko zehatz edo gutxi gorabeherako batean.
- b) zenbateko zenbatetsian.
- c) finkatutako zenbatekoan.
- d) zehazki finkatutako zenbatekoan.

87.- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 10. artikulua arabera, lurzoruaren sailkapentzat joko da lurzoruaren eremu zehatzak —hirigintzako egiturako antolamenduaren bidez— lurzoru-mota hauen lege-araubideari lotzea:

- a) hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina.
- b) hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta berrurbanizagarria.
- c) hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta landa-lurra.
- d) hiri-lurzorua, urbanizagarria eta finkatugabea.

88.- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 59. artikulua arabera, antolamendu xehatuko planak dira: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) Plan bereziak: plan orokorren egiturazko antolamendua garatzeko, edo plan horietatik autonomoak.
- b) Hiri-antolamenduko plan bereziak: antolamendua hiru-lurzoruko area jakin batzuetan burutzeko.
- c) Sektorekatze-planak.
- d) Plan partzialak.

89.- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 87. artikulua arabera, ezarri nahi den antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak zehazteko eta plan orokorra lehendabizikoz egiten denean edo indarrean dagoen bat guztiz edo partzialki berrikusi behar denean orientabide izateko diren hirigintza-plangintzako dokumentuei honela esaten zaie:

- a) xedapen-azterketak.
- b) aurrerakinak.
- c) alde aurreko hirigintza-dokumentuak.
- d) alde aurreko hirigintza-oroitidazkiak.

90.- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 162. artikulua arabera, hitzarmen-batzararen erabakien aurka, errekurtsioa hau jarri ahal izango da Udalaren aurrean:

- a) gora jotzeko errekurtsioa.
- b) berraztertzeko errekurtsioa.
- c) berrikuspen-errekurtsio berezia.
- d) zeharkako errekurtsioa.

91.- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 210. artikulua arabera, hirigintza-lizentzia emateko prozedura...

- a) ofizioz hasiko da.
- b) interesdunak eskatuta hasiko da.
- c) ofizioz eta interesdunak eskatuta hasiko da.
- d) ofizioz eta arkitektoen elkargoak eskatuta hasiko da.

92.- 1954ko abenduaren 16ko Legea, nahitaezko desjabetzeari buruzkoa. 9. artikulua araberan, nahitaezko desjabetzeari ekiteko, ezinbestekoa izango da, aldez aurretik:

- a) balio justua jasota uztea.
- b) desjabetutako objektua atxikiko zaion xedearen onura publikoaren edo interes sozialaren aitorpena.
- c) interesdun guztiei jakinaraztea.
- d) jendaurreko informazio-aldia irekitzea.

93.- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa. 1. artikulua araberan, giza bizia garatzen deneko ingurumena osatzen dute:

- a) aireak, urak, lurzoruak, biodibertsitateak, florak eta faunak, beren parametro eta elkarrekintza egokiekin.
- b) aireak, urak, lurzoruak, mendiek, florak eta faunak, beren parametro eta elkarrekintza egokiekin.
- c) aireak, urak, lurzoruak, paisaiak, argiak, florak eta faunak, beren parametro eta elkarrekintza egokiekin.
- d) aireak, urak, lurzoruak, paisaiak, florak eta faunak, beren parametro eta elkarrekintza egokiekin.

94.- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zarataria buruzkoa. 3. artikulua araberan, zarataren eta horren eraginen inguruko gaiari —zarataren murrizketa barne, behar izanez gero— aurre egitera bideratutako planei honela deitzen zaie:

- a) jarduera-planak.
- b) plan akustikoak.
- c) ebaluazio akustikorako planak.
- d) ekintza-planak.

95.- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuena. 3. artikulua araberan, edozein eragiketa, zeinen emaitza nagusia baita hondakinak helburu baliagarri baterako balio izatea —beste material batzuk ordeztuz, beste modu batean funtzio partikular bat burutzeko erabiliko zitezkeenak— edo hondakina instalazioan edo, oro har, ekonomian funtzio hori betetzeko prestatzea, honela deitzen da:

- a) berrerabiltzea.
- b) suntsitzea.
- c) balioa ematea.
- d) leheneratzea.

96.- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa. 59. artikulua araberan, jardueraren instalazio- edo hedapen-proiektuari neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena:

- a) loteslea izango da udal-agintaritzarentzat jarduera-lizentzia ematearen kontrakoa denean, baita neurri zuzentzaileak ezartzeko premia dagoela erabakitzen duenean ere.
- b) loteslea izango da udal-agintaritzarentzat jarduera lizentzia ematea bidezko denean, baita neurri zuzentzaileak ezartzeko premia dagoela erabakitzen duenean ere.
- c) loteslea izango da udal-agintaritzarentzat jarduera-lizentzia ematearen kontrakoa denean.
- d) loteslea izango da udal-agintaritzarentzat neurri zuzentzaileak ezartzeko premia dagoela erabakitzen duenean.

97.- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa. 62 bis artikulua araberan, jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) jarduera deskribatzen duen memoria.
- b) eskumena duen teknikariaren ziurtagiria, ingurumenarekiko betebeharrak guztiak betetzen direla egiaztatzen duena.
- c) aurreko bi dokumentuak —a) eta b) letretakoak—.
- d) jardueraren proiektua eta eskumena duen teknikariaren ziurtagiria, ingurumenarekiko betebeharrak guztiak betetzen direla egiaztatzen duena.

98.- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa. 64. artikulua araberan, ahalmena du legez kanpoko jarduerak bertan behera utzi edo ixteko, lizentziak deuseztatze eta legez finkatutako zehapenak ezartzeko:

- a) Tokiko Gobernu Batzarrak.
- b) Alkateak.
- c) Udalbatzak.
- d) Udalbatzaren batzordeak.

99.- 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu Jardueretan Askatasunez Sartzeko eta horietan Jarduteari buruzkoa. 11. artikulua araberan, murriztapen kuantitatiboak nahiz lurralde-murriztapenak —zehatzago, populazioaren edo prestatzaileen arteko gutxieneko distantziaren arabera ezarritako mugak—...

- a) betebeharrak debekatuak dira.
- b) interes partikularreko betebeharrak dira, aldez aurreko kontsiderazioa eskatzen dutenak.
- c) betebeharrak gardenak dira.
- d) salbuespen gisa aplikatu litezkeen betebeharrak dira, eta aldez aurreko ebaluazioa eskatzen dute.

100.- 12/2012 Legea, abenduaren 26koa, Merkataritza eta zenbait Zerbitzu Liberalizatzeko Premiazko Neurriei buruzkoa. 2. artikulua arabera, lege honen I. tituluan jasotako xedapenak txikizkako merkataritza-jarduerei eta lege honen eranskinean aurreikusitako zerbitzu jakin batzuei aplikatuko zaizkie, baldin eta erakusteko eta publikoari saltzeko duten azalera erabilgarria...

- a) 600 metro koadro baino handiagoa ez bada.
- b) 650 metro koadro baino handiagoa ez bada.
- c) 700 metro koadro baino handiagoa ez bada.
- d) 750 metro koadro baino handiagoa ez bada.

101.- 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, Merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoa. 17. artikulua arabera, baimen bat eskatzea ezarri ahal izango da, printzipio hauek betetzen direlarik:

- a) premia- eta segurtasun-printzipioak.
- b) premia- eta proportzionaltasun-printzipioak.
- c) premia- eta lankidetzaren printzipioak.
- d) premia- eta batasun-printzipioak.

102.- 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, Merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoa. 26. artikulua arabera, agintaritza eskudunek eragile ekonomikoen eskubideak eta interesak defendatzeko prozedurak izaera hau du:

- a) nahitaezkoa.
- b) subsidiarioa.
- c) aukerakoa.
- d) nagusia.

103.- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerena. 26. artikulua arabera, autonomia-erkidegoan ikuskizunen eskumena duen organoak txostena egin beharko du jardura sailkatuaren lizentzia eskuratzeko prozedurretan, kopuru honetatik gorako kapazitate edo edukiera aurreikusita duten establezimenduak direnean:

- a) 300 pertsona.
- b) 500 pertsona.
- c) 600 pertsona.
- d) 700 pertsona.

104.- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerena. 39. artikulua arabera, aldez aurreko jakinarazpena eska daitekeen kasuetan, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera hasi baino zenbat egun lehenago aurkeztu behar da jakinarazpen hori?

- a) hamar egun.
- b) hamabost egun.
- c) hogeitun egun.
- d) hogeita hamar egun.

105.- 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa. 24. artikulua arabera, Ertzaintza Kidego bakar moduan eratzen da organikoki, eta bertan sartzen dira:

- a) Miñoiak, Lokalak eta Mikeleteak.
- b) Miñoiak, Guardiak eta Mikeleteak.
- c) Miñoiak, Foralak eta Mikeleteak.
- d) Miñoiak, Foralak eta Guardiak.

106.- 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa. 116. artikulua arabera, salbuespenak salbuespen, zenbat biztanle edo gehiago duten Euskal Herriko udalerriek sor ditzakete beren Polizia Kidegoak?

- a) bost mila biztanle.
- b) hamar mila biztanle.
- c) hamabost mila biztanle.
- d) hogeitun mila biztanle.

107.- 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. 48. artikulua arabera, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzu bakoitzeko langileen azpieskala operatiboa kategoria hauetan egituratzen da: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) ofiziala.
- b) inspektoreordea.
- c) sarjentua.
- d) ofizialordea.

108.- 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. 50. artikulua arabera, suteen prebentzio eta itzalketak eta salbamenduko zerbitzuetako kideak, haien eginkizunak betetzen ari direla, agintaritzaren agentetzat joko dira...

- a) lanean ari direnean, betiere alde aurretik beren izaera egiaztatzen badute.
- b) lanean ez daudenean, beren izaera egiaztatzen badute.
- c) lanean ari direnean edo, lanean ez egonda ere edozein motatako ezbeharretan esku hartzen dutenean, betiere alde aurretik beren izaera egiaztatzen badute.
- d) lanean ari direnean edo, lanean ez egonda ere edozein motatako ezbeharretan esku hartzen dutenean.

109.- 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena. 9. artikulua arabera, kirol-erakunde motak dira: (Aukera OKERRA adierazi)

- a) kirol-elkarteak.
- b) kirol-zentroak.
- c) kirol-klubak.
- d) kirol-federazioak.

110.- 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena. 45. artikulua arabera, kirol lehiaketak, ofizialak izan ala ez, honako hauek antolatu ahal izango dituzte:

- a) edozein pertsona juridiko publiko edo pribatuk.
- b) edozein pertsona juridiko pribatuk.
- c) edozein pertsona juridiko publiko edo pribatuk.
- d) edozein pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuk.

111.- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. 18. artikulua arabera, dirulaguntzen publizitate-sistema nazionala...

- a) Dirulaguntzen Datu-base Nazionala izango da.
- b) Dirulaguntzen Base Nazionala izango da.
- c) Dirulaguntzen Datuen Base Nazionala izango da.
- d) Datuen eta Dirulaguntzen Base Nazionala izango da.

112.- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. 34. artikulua arabera, dirulaguntzari lotuak diren jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa izanik funtsak justifikatu aurretik ematen direneko ordainketei honela esaten zaie:

- a) kontura egindako ordainketak.
- b) ordainketa aurreratuak.
- c) atxikitako ordainketak.
- d) alde aurreko ordainketak.

113.- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 59. artikulua arabera, gizarte-zerbitzuen horniketan eta eskaintzan esku hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

- a) Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatzea.
- b) Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatzeaz gain, administrazio-baimena.
- c) Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatzeaz gain, administrazio-baimena eta alde aurreko homologazioa.
- d) Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatzeaz gain, administrazio-baimena, alde aurreko homologazioa eta lankidetzaz hitzarmena.

114.- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 74. artikulua arabera, gizarte-zerbitzuen eskaintzan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko aitortzea...

- a) Eusko Jaurlaritzari dagokio.
- b) aldundiei dagokie.
- c) udalei dagokie.
- d) Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari dagokio.



115.- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. 24. artikulua arabera, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari egiten zaion erreklamazioa epe honetan aurkeztu beharko da:

- 30 eguneko epean, aurkaratutako ekintza jakinarazten den egunaren biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatuta.
- hiru hilabeteko epean, aurkaratutako ekintza jakinarazten den egunaren biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatuta.
- hilabeteko epean, aurkaratutako ekintza jakinarazten den egunaren biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatuta.
- bi hilabeteko epean, aurkaratutako ekintza jakinarazten den egunaren biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatuta.

116.- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. 29. artikulua arabera, agintekeria kargua betetzean...

- arau-hauste arina da.
- arau-hauste larria da.
- ez da diziplinazko arau-haustea.
- arau hauste oso larria da.

117.- Europar Batasuneko tratatua. 14. artikulua arabera, Batasuneko herritarren ordezkariak osatuko dute Europako Parlamentua. Horien kopurua, gehienez ere,...

- bostehun eta berrogeita hamarrekota izango da, lehendakaria kopuru horretatik kanpo gelditzen dela.
- bostehunekota izango da.
- zazpiehun eta berrogeita hamarrekota izango da, lehendakaria kopuru horretatik kanpo gelditzen dela.
- zazpiehun eta berrogeita hamarrekota izango da.

118.- Europar Batasunaren Tratatua. 15. artikulua arabera, Kontseilu Europarrak...

- ez du ezein legegintza-eginkizunik beteko.
- eginkizun exekutiboak izango ditu.
- aurrekontu-eginkizunak izango ditu.
- legegintza-eginkizunak izango ditu.

119.- Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatua. 253. artikulua arabera, Erkidegoko estatuetakoko gobernuak izendatuko dituzte Justizia Auzitegiko epaileak eta abokatu nagusiak, gobernu guztiok ados jarrita, eta...

- hiru urterako izango da.
- lau urterako izango da.
- bost urterako izango da.
- sei urterako izango da.

120.- Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatua. 288. artikulua arabera, hauek dira lotesle izango ez diren Batasunaren egintza juridikoak:

- erabaki eta gomendioak.
- erabaki eta irizpenak.
- gomendio eta irizpenak.
- gomendio eta zuzentarauak.